

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5087

*IRAGARKIA, zeinaren bidez jakinarazten baita hurrengo errekerimendua: eskaera zuzentzea, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak (Lehiatu Berria 2021 programa) emateko egindako deialdiarekin lotutakoa.*

Aipatutako errekerimendua zuzenean jakinaraztea lortu ez denez, iragarki hau argitaratzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzeko.

Interesdunak 10 egun balioduneko epea du eskabidea telematikoki aurkezteko, laguntza espezifikokoaren deialdi-aginduaren arabera.

Eranskinean aipatutako interesduna jakinaren gainean egon dadin argitaratzen da hau, eta jakinarazpenaren balioa izango du harentzat.

Jakinarazpen honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 10a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,  
JAVIER PLASENCIA CUADRADO.

## ERANSKINA

| Interesduna                                  | NAN/IFZ/AIZ | Erreferentzia       | Urtea |
|----------------------------------------------|-------------|---------------------|-------|
| Destilerías y Biorefinerías Zambrana, S.A.U. | A42811976   | Lehiatu Berria 2021 | 2021  |